

ZESTOAKO ALKATEAK XVI. MENDEAN (1521-1530)

Zestoan, hiribildua 1383an sortu zenez gero, urtebeterako hautatzen zuten alkatea. Zestoako 1483. urteko ordenantzetan zehazten denez, irailaren 29an (San Migel egunez) aukeratzen zituzten hiribilduko alkate eta ofizialak. Gure ustez hiribildua sortu zenez gero zuten San Migel egunean alkatea hautatzeko ohitura. Urte batean Zestoako harresi edo errebaletakoa aukeratzen zuten, eta hurrengo urtean Aizarnakoa.

Ondoren agirietan azaldu diren alkateen zerrenda ematen dugu, nahiz eta urte batzuetan hutsuneak egon eta dataren bat zalantzazkoa izan..

XVI. mendeko alkateak (1521-1530)

- Martin Fernandez Edarritzagakoa (1520-IX-29/1521-IX-29)
- Martin Otxoa Artazubiagakoa (1522?-IX-29/1523?-IX-29)
- Joan Martinez Akertzakoa (1523-IX-29/1524-IX-29)
- Otxoa Martinez Beduakoa (1524-IX-29/1525-IX-29)
- Domingo Artiga (1525-IX-29/1526-IX-29)
- Martin Ondalde (1526-IX-29/1527-IX-29)
- Domingo Perez Zabalakoa (1527-IX-29/1528-IX-29)
- Joan Igartza (1528-IX-29/1529-IX-29)
- Joan Martinez Amilibikoa (1529-IX-29/1530-IX-29)
- Joan Lopez Zelaikoa (1530-IX-29/1531-IX-29)

